

ESANAHI KOGNITIBOAREN AUZIARI ERANTZUN BAT

- Edukiak islatu behar du hizkuntzaren esanahi kognitiboa.
- S eta S' kognitiboki desberdinak => eduki desberdina

AUZI BIEN ELKARKETA

Konposizionalitate printzipia + Esanahi kognitiboa edukiak islatzen du.

Ateratzen diren ideiak:

- EDUKIA DAKURATEAK ADIERAZPEN TIPOAK DIRA
 - Unitate lexikoez konbentzionalki
 - Konplexuek konposizionalak
 - Aleak edukia dute TIPOEN ALEAK DIREN HEINEAN
- KOMUNIKAZIOAN "KODIGOAREN EREDA"
 - Komunikazioa KODIFIKAZIO/DEKODIFIKAZIO prozesua da.
 - Proposizioak perpausuetan kodifikatu => esaldiak egin => perpausak proposizioetan dekodifikatu.
- KOMPETENTZIA LINGUISTIKOA = ULERTZEA (esanahia jasotzea)

→ Hau horrela onartuz gero, arazoak:

- ESANAHI LINGUISTIKOA = EDUKIA?
- HIZKUNTZAK FUNTZIA ERREPRESANTAZIOALA baizik ez?
- KODIGOAREN EREDAU TESTUINGURUA/ERABILERA... KAUPOAN GELDITZEU DIRA

Esanahi kognitiboa edukiak islatzen du


- EDUKI LINGUISTIKOA = EDUKI MENTALA (Proposizioa)

09/24

WITTGENSTEIN

Tractatusa

- Teoria figuratiboa
- Isomorfia = Munduak, pentsamenduak eta hizkuntzak forma logiko bera.
 - Análisi logiko-filosofikoa ERAKUTSI
- Atomismo logikoa
- Esanahigarritasuna designaziotik dator.
 - Hizkuntzak ez du zentzurik mundua deskribatzeko ez bada.
 - SENSELESS: Logikaren perpausak
 - NONSENSE: Metafisika, mistika
- Esanahiaren mugak
 - Logikaren perpausuez erakutsi.
 - Esan/Erakutsi
- Filosofia tradizionalaren proposizioak → Sasi-proposizioak
 - Hizkuntzaren zaira ez ulertzetik sortuak
- TRACTATUSA = PROPOSIZIOAREN FORMA DAKORRAREN TEORIA
 - Análisi logiko-filosofikoa.



• Teoria bat eskaintzen du.

HIZKUNTZA ARRUNTAREN FILOSOFIA [konpositik - deskriptiboki biziaren - jarritako zera]

Cambridge - Oxford.

Wittgenstein hasi → ikerketan (Aitzindaria)

- Hizkuntzaren erabilera arrunta vs erabilera filosofikoa.
 - Abiapuntu metafilosofikoa → Hizkuntza bere erabilera arruntean erabiliz (adb. ezagutu).
 - Hizkuntzak, bere erabilera arruntean, ondo funtzionatzen du.
 - Arazoa: filosofoa hizkuntzari beste erabilera bat ematen hastean sortzen da
- Vienako Neopositibismoaren aurka.
 - Hizkuntza idealak
- Oinarriko ideiak:
 - Hizkuntzaren erabilera arrunta ondo dago.
 - Ez dauka ozkutuak ez.
 - Filosofia → Análisi lingüistikoa.
 - Deskribatu eta ondorioak ateratu.

Tractatus vs ikerketa filosofikoa ⇒ Hizkuntzaren ulkeren oso ezberdina.

TRACTATUS = P. forma orokorraren teoria.

- SISTEMATIKOA
- Abstrakzioarako joera
 - Hizkuntzaren adierazpen guztiek komun dutena.

IKERKETA = ikerketa gramatikala

- Pluraltasuna: hizkuntzaren erabilera ezberdinak.
- ASISTEMATIKOA
- Partikularrerako joera
- Hizkuntza erabileren DESKRIBAPENA (vs teoria)
 - Adibideak
- Baina EPIGRAFEEN ORDENARI GARRANTZIA

Ikerketen egitura: (tematika)

- HIZKUNTZA EREDUA
- METAFILOSOFIA
- ARAUA JARRAITZEA → Oso debatitua
- HIZKUNTZA PRIBATUA
- PSIKOLOGIA

] landuko ditugun atalak (metafilosofiatik hasita)

IKERKETA FILOSOFIKOAK

Metafilosofia

Tractatusarekin puntu komunak: (Ulerzeko modua desberdina den arren)

- Filosofia tradizionalaren arazoak → Sasi-arazoak
 - Hizkuntza gaizki ulertetik sortuak.
 - Hizkuntzaren analitiko etorniko da ebazpena.
 - Filosofia praktika bezala.

19/01

Traktatusean proposatzen duen hizkuntzaren ikuskera

◦ PROPOSIZIOAREN FORMAREN TEORIA

- Hizkuntzak ESENTZIA DU (latina)
- Hizkuntzari berezkoa zaiona
- Ekutukoa

Hau argitaratzen ekartzeko analisi logiko-filosofikoa da TRACTATUSA

Ikerketa filosofikoa proposatzen duen hizkuntzaren ikuskera

◦ IKERKETA GRAMATIKALAK

- Hizkuntzak ez du ekutuko ezer.
- Azalpenik/Teoriarik ez. Deskribapenak.

IKERKETA FILOSOFIKOAK

METAFILOSOFIA

109. • Ezin da teoriarik proposatu → Hizkuntzak ez du esentziarik.

• Ez dago azaltzeko ezer → Deskribapenak azalpenaren lekua.

↳ Bizi jakin izan duguna bizi eta biziaren aurrean jarri.

• Filosofia berrak bat da hizkuntzaren bidez(ko) gure adimenaren sortzearen aurka.

90. • Hitz berrak adierazpen ezberdinak / adierazpen ezberdinen antzekotasunak → Kimera. Ez dago ekutuko ezer.

• Logika → Adierazpen bat beste bategatik aldatzea.
Nahiz izanez gero analisia dugu.

↳ 91. Ez biltu sakoneko egitura bat logikaren bidez. Logikak ez du hizkuntzaren ekutuko esentzia argituko, ez dagoeko ekutuko ezer.

Berezikieta faktore: Azalekoa / Sakonetsa ⇒ Hizkuntza naturala ondo dago.
traktsa argia
gramatika logika

90. Ikerketa filosofikoak → Ikerketa gramatikalak (azalekoak)

126. • Filosofia egiten duen BAKARRA → Dena gure paretan jarri (Ikerketa gramatikala)

- Ez du egiten → Azaldu, ondorioak eman...

116. Filosofoak → Hizkuntz-adierazpenen erabilera arruntak "usteldu" → Sasi arazoak sortu.

Benetako ikerketa filosofikoak/gramatikalak → Adierazpenak berrak erabilera arruntara itzuli. → Arazoa deuseztu.

133. Ez dago metodo filosofiko bat.

↳ Erabil daitezkeen metodo ugari daude.

NOIZ BUKATZEN DA IKERKETA?

Bi erantzun: - Inoiz ez
- Nahiz duzunean

*Ikerketa filosofoak → Terapia (arazoak deuseztu, ez soluzioak eman)

HIZKUNTZAREN FILOSOFIA

1. HIZKUNTZAREN "IKUSKERA AGUSTINDARRA":

- ESENTZIA → Adierazpenak esanahia ordezkaltzen du.
 - DESIGNAZIOA → Ezkutzea, Batasuna
 - KONPOSIZIONALITATEA
 - KOMPETENTZIA → ULERTZE [Ezperak kognitiboa]

Tratatu bako hizkuntza-eredua

--- Honaino, esentzia kenduz gero, IF-etan ere onartuko luke. ---

AKATSA → Horiek ez du hizkuntzaren esentzia ematen (hizkuntza osoraren azalpen bat)
↳ Izen proposioen (eta adierazpenen) azalpena da → Hitz moten arteko desberdintasunak alko batera.

Ez dago hizkuntza osorari batasuna ematen dion ezer.

23. Infinito perpaus mola dago

10/04

Konposizionalitatea ez da "ikuskerak agustindarraren" pinzelada bat.

"IKUSKERA AGUSTINDARRA" KONPOSIZIONALITATEK ABIAZTEN DA

↳ Adierazpenen baten esanahia konposizioari egiten dion ekarpena da. (proposizioari)

"IKUSKERA AGUSTINDARRAREN":

- Adierazpenen esanahiak TESTUINGURUAREKIKO ETA ERABILERAREKIKO DEPENDENTZIA TXIKIA.
- HITZAK ESANAHIA BEREZ → Erabilera erantzerik.

"IKUSKERA AGUSTINDARRAK" ONDO azaltzen du hizkuntzaren IZAERA INTENTZIOALA

↳ Hizkuntzak mundua deskribatzeko duen gaitasuna:

1. Adierazpena esanahiaren ordezkari
2. Esanahia objektuen ordezkari.

66. JOKOAK: (joko zein jokoa, Alemanez berdin esaten da)

+11+43 Karta-jokoa, pilota-jokoa...

KOMUN DUTEN GAUZA BAKARRA → JOKOAK DIRA

Berez, ~~EZKUTU~~ BATASUNA → AGERIKO UGARITASUNA

ANALOGIA:

Hizkuntzak ere hainbat erabilera ezberdin (hizkuntz-joko) ditu. AGERIKO UGARITASUNA.

Badaude:

- Antzekotasunak } Horiek gure interesari erantzuten die. Taldekatu ditzakegu antzeko-tasunen arabera. Jokoen artean komun dutena azaldu arte.
- Ahaiztasunak

BAINA → Ez da naturazko sailkapena. Gizakiak auzo egina da.

* EZ PENSATU, BEGIATU (Ez dago ezkutuko ezer)

HITZEN BEREZKO EZAGARRIAREN AURKA:

Paioiak (valekotoak), BEREZ ez dira ezer. Kalkulan funtzio bat dute, baina jokoa hartzen du funtzio hori.

Ezin da esan BEREZ 7ko urtea zer den

↳ Azal daitezke joko bakoitzean nola erabil daitezkeen, ez BEREZ zer den.

ANALOGIA:

"Donostia" Izen proposioa:

Nola erabil daitezkeen azal daitezke, BEREZ zer den ez.

HITZAREN ESANAHIA EMATEA ⇒ Parte hartzen duen hitz-jokoa DESKRIBATZEA

DESIGNAZIOAREN UKAPEUA:

- Hitzak ez dauke esanahiaren orde

MEANING AS USE:

ESANAHIA → Hitzak joko ezberdinetan izan ditaketen erabilera.
(Hizkuntzan duen erabilera)

MEANING IS USE (Esanahia erabilera da): [Ez da Wittgensteinek berak esana]

- Arazoa: Erabilera akerra dauke

BIRFORMULAZIOA: MEANING AS USE:

ESANAHIA: Hitza joko ezberdinetan erabiltzeko jarraitu beharreko ARRAK.

TESTUINGURUAREN DEPENDENTZIA:

Hizkuntza - joko partikular bat burutzeko → Baldintza batzuen beharra

TESTUINGURUA ESANAHIAI INTRINSEKOKI LOTUTA DAGO

KONPETENTZIA LINGUISTIKOA:

Adierazpenak erabiltzen jakitea (baldintza egokietan, argi)

- Ez da egoera kognitibo bat

19. Hizkuntza bat irudikatzeak bizitzeko modu bat irudikatzea esan nahidun.

1. Praktika batzuk aurrera eramateko sartzen da hizkuntza.

2. Hizkuntza hori sortu delako eraman daitezke praktika horiek aurrera.

WITTGENSTEINEN ARAZO NAGUSIA:

Hizkuntzaren produktibitatea azaltzea

~~10/08~~

10/08

QUINE

ENPIRISMOAREN BI DOGMAK

Egia motak eta modalitateak

EGIA → Propietate ~~metafisikoa~~ metaerrepresentazionala.
Munduaren errepresentazioek izan dezaketen propietatea.

Egia diren perpaus guztiak ~~ETA~~ MAGNITUDE BEREAN dira egia.
Baina badaude egia izateko modu desberdinak

EGIA MOTAK

- Egia izateko MODU desberdinak daude.

MODALITATEAK

↳ Egiekiko planterak daitezkeen aspektu desberdinak.

• MODALITATE METAFISIKOA: Egia beharrezkoak vs kontingenteak

- BEHARREZKOAK → Egia dira eta ezin zitezkeen faltsu izan. (Egia matematikoa, ~~ETA~~ logikoa)

- KONTINGENTEAK → Egia dira, baina bazitekeen faltsu izatea.

↳ MODU POSIBLEAK: P. bat beharrezkoa → bbb mp guztietan egiazko.

P. bat posible → bbb mp batean gutxienez egiazko.

P. bat ezinezko → bbb mp guztietan faltsua.

P. bat kontingente → bbb mp batean ~~bbb~~ gutxienez faltsua eta mundu errealan egia.

Modalitate hau metafisikoa da mundu errealaren ez dela nahikoa egiazko beharrezko eta kontingenteen artean bereizteko.

• MODALITATE EPISTEMIKOA: Egiaz a priori vs a posteriori

→ Subjektuak p a priori ezagutzen du bbb esperientziatik independenteki ezagutzen badi.

- A priori edo a posteriori ez dira egiazko, ezagutza bairik.

- Posible da S batek egia bat a priori ezagutzea eta S' batek egia bera a posteriori ezagutzea.

- Esperientziatik independenteki: Esperientziatik ez du inolako justifikaziorik.

→ Egia bat a priori da bbb esperientziatik independenteki ezagugarria bada.

↳ Subjektu idealki arazional batenek.

• MODALITATE SEMANTIKOA / LINGUISTIKOA: Egia analitikoak vs sintetikoak

→ Egia bat analitikoa da bbb egia bada esanahiaren binarri hutsean.

- Badaude "munduaz independentek" (munduaren ekarpenik gabe, hinkuntzaren ekarpen hutsez) egiazko diren ~~esentzialak~~ perpausak. Adb. "Ez dago ezkonduzako saltzerorik".

• Lehenengo / bigarren analitikoak:

- Lehenengo analitikoak: Egia logikoak → Perpausaren operazioak le logikoen ~~esentzialak~~ esanahia eta egitura logikoa emanda, automatikoki egiazkoak diren perpausak. Adb. "Euria ari du edo ez du ari".

- Bigarren analitikoak: Egitura logikoa ez da nahikoa.

• Kant: Perpaus bat analitikoa da bbb subjektuak predikatua barne hartzen badi.

Adb. "Saltzerak guztiek ezkondu gabe daude".

Arazoa: Ez ditu egia logikoak barne hartzen.

• Frege: Perpaus bat analitikoa da bbb egia logikoa bada edo sinonimoak sinonimoekin ordezkaturik egia logikoa bat lor dezaketeke.

Arazoa (Quine): Analitikotasuna, sinonimia, esanahia erabat lotuta daude.

- ERLAZIO INTERMODALAK: Egiaren modalitateen arteko erlazioak
- KO-HEDADURA PRINTZIBIOA: p beharrezkoa da bbb a priori bada eta bbb analitikoa bada. Kontzeptuak elberdinak baina hedadura bera.
 - Bi egia mota: beharrezko, a priori, analitikoak vs kontingente, a posteriori, sintetikoak.
- BEHARREZKOTASUAREN KONTZEPZIO SEMANTIKOA.
 - Beharrezkotasuna azaltzeko → analitikotasuna
 - A-prioritasuna azaltzeko →
- Kontzepzio hau onartuz gero → ko-hedadura printzipioa onartu behar.
 - Analitikoa ⇒ Beharrezkoa eta a priori.
 - Analitikoa → Munduaz independenteki egiazkoa → MP gutxielan egiazkoa → Beharrezkoa
 - Analitikoa → " " " " → Esperimentiaz independenteki eragugarria → A priori
 - Sintetikoa ⇒ Kontingentea eta a posteriori.
 - Sintetikoa → Munduaren arabera egiazkoa → Munduak egiazko edo faltsu egin dezake → Kontingentea
 - Sintetikoa → Munduaren arabera egiazkoa → Eragutzeke esperimentiazko beharra → A posteriori

10/15

VIEWAKO ZIRKULUA

- Empiristak
- Neopositibistak
- Munduaren ikuskeren zientifikoa
- Izaera antimetafisiko nabarmena.
 - Metafisikaren perpausak ez dauke esperientzian oinarrituta → Ez dauke justifikatuta
 - Ez dute eragutza osatzen
 - Ez dute esanahirik

BERIFIKAZIONISMOA

- Ahula → Esanahigarritasuna
- Gogorra → Esanahia
- * Esanahiaaren irizpide empirikoa: P batek esanahia du bbb ^{analitikoa bada edo} oinarrituta perpaus obserbazionaletatik eratorria bada.
- * Oinarrituko perpaus obserbazionalak: Esperientziak zuzenean baieztatu ditzakeenak.
- * ELE (birformulaketa): P batek esanahia dauka bbb analitikoa bada edo p-ren hiztegi ez-logikoa oinarrituko hiztegi obserbazionalaren bitartez interpretagarria bada. - Carnapen ideiak jasotzeko (Berifikazionismo gogorra)

Arazoak:

- Matematika ezin da esperientziazik deribatu → Soluzioa: Analitikoak dira
- ELE-k berak ez du esanahirik
- Filosofien perpausak
 - ↳ Inesistentzialak dira
 - Munduari buruz ez dute ezer esaten
 - Baina ez dira tribilakak.

Mundua (0 maila)

Zientzia (1. maila) → Munduari buruz

Filosofia (2 maila) → Ingenieritza kontzeptuala. Diskurtsoari buruz (zientzia, hizkuntza...)
 ↳ MOIZ EZ MUNDUARI BURUZ

— QUINE: ENPIRISMOAREN BI DOGMA —

Estatu batuetan

Vienako zirkularekin kontaktu zuzena.

Pragmatismoaren eragina.

ENPIRISMOAREN BI DOGMAK:

- Analitiko / sintetiko bereizketa
 - Erredukzionismoa
- Ez daude justifikatuta.

1. Analitiko / sintetiko bereizketa:

EZ DA GU JUSTIFIKATUTA

ARGUDIOA:

- Analitikotasunak definizio zirkularra dauka, analitikotasunak besteko azalpen beharra duten kontzeptuekin: esanahia, sinonimia, definizioa.
- Kontzeptu horietako bat ere ez da argia.
 - Lehen puntua ez da nahikoa (definizio zirkularra zateke) Quine aurka agertzeko; bere hizkuntzaren filosofiak izatera holista baitu.

ESZEPTIZISMO INTENSIONALA

- KONTZCEPTU INTENSIONALAK: Hedadura / intentsioa

Hedadura:

- f. singularretan: erreferitzen den objektua.
- f. pluralretan / predikatibetan: terminoa bereizi buruz egia den objektuen multzoa

Intentsioa:

Hedadura bera duten adierazpenak bereizten dituzena.

→ QUINEREN ARABERA EZ DA EXISTITZEN. METAFISIKA ILUNA DA

- Analitiko, sinonimia, esanahi, definizio... → TERMINO INTENSIONALAK DIRA

Bereizketaren justifikazio falta argudiatzeko egiten duen bidea:

ANALITIKOTASUNA: P analitikoan da bbb bere esanahiaren harira epiatikoa bada, egitateari kontuan hartu gabe.

• Arazoa:

ESANAHIA: kontzeptu iluna / intensionala

↳ Uler daiteke, esanahiarekin hedadura esan nahi bada. Baina horrek ez du analitikotasuna zer den azaltzeko.

Esanahia extentsionalki ulertuz gero "giltzurundun izaki guztiak bihurtunak dira" perpausa analitikoan litzateke analitikotasunaren definizio horren arabera.

EZ DU BALIO

Esanahia intensionala bada, azalpena behar du.

⇒ ANALITIKOTASUNAK ETA ESANAHIAK AZALPEN BEHARRA.

↳ LEHEN/BIGARREN ANALITIKOAK:

• Lehen analitikoak: Egia logikoak

• Bigarren analitikoak: Sinonimiaten bitartez egia logiko bikeru daitezkeen perpausak.

• Arazoa:

SINONIMIA:

10/18

SINONIMIA

TRUKAGARRITASUNA

- α eta β sinonimoak dira bbb salva veritate trukagarriak badira.
- Sinonimia totala / kognitiboa:
 - S. Totala, α eta β s. totalak bbb trukagarriak badira irongo eraginik gabe.
 - S. Kognitiboa

- (1) Saltzer guztiak gizonezko ezlangarriak dira.
- (2) Renate guztiak cordate dira.
- (3) Derrigorrez, saltzer guztiak gizonezko ezlangarriak dira.
- (4) Derrigorrez, renate guztiak renate dira.

HIZKUNTZA EXTENSIONALAK / INTENSIONALAK:

- H. extensionalak:
 - Operazioak intensionalik (analitiko, derrigorrez, ezinbestean) gabe.
 - Hedadura nahikoa da p. guztiaren egia balioa zehazteko.
- H. intensionalak:
 - Operazioak intensionalak dituztenak.
 - Hedadura ez da nahikoa p. guztiaren egia balioa zehazteko.

Hizkuntza extensional batean, salva veritate trukagarritasuna ez da baldintza nahikoa sinonimia azaltzeko. Nahikoa baltz, (2) perpausa analitikoa litzateke.

Hizkuntza intensional batean, " " " nahikoa da sinonimia azaltzeko.

- (3) perpausaren, "saltzer" baten ordez "gizonezko ezlangabe" jarri gero, ez da perpausaren egia balioa aldatzen.
- (4) perpausaren eginez gero, bai.

ARAZOA: Salva veritate trukagarritasuna ez da berez kontzeptu intensionala, baina, funtziona dezan, beharrezkotasuna bezalako kontzeptu intensionalak behar ditu.

Beharrezkotasuna analitikotasunetik dator.

S.V. trukagarritasuna ezin da analitikotasuna azaltzeko erabili.

ANALITIKO/SINTETIKO BEHARREKETAAREN JATORRIA:

Beharrezkotasun baten egia hizkuntza osagai batez eta egitate osagai batez ateragarria.

DOGMA

2. DOGMA: ERREDUKZIOA

PERPAUSEN ARTEKO SINONIMIA: p eta q sinonimok biko egiazatze metodo berea izan daiteke.

ONARTZEAN BADA:

- Berifikazionismoa.
- Perpaus baten esanahia bere egiazatze metodarik ematen duela...

... ERRESKATATU DAITEKE Analitiko/sintetiko bereizketa.

ARAZOA:

- Berifikazionismoa erredukzioan oinarritzen da → Eragutza esanzen duen perpaus oro einarritzko perpausetara/hiztegiara erredukzioa da. (Nahiko zirkulara)
- Erredukzioaren dogma beti da (Quine): edozein perpaus da interpretagarria einarritzko hiztegiaren bitartez.
Hori agian ez lukeke autore gutxiak postulatuko, baina oinarritzko ideia hau bai:
Edozein perpausentzat beti da posible isolatu eta perpausa onesten eta ezesten duen esperientzia multzoa identifikatzea.

↳ ERREDUKZIOAREN DOGMA

DOGMA JATORRIA

Perpausa isolatuta hartu eta bereiz daitezke:

- (1) Osagai semantikoa (proposizioa)
- (2) Osagai faktuala (proposizioa egia izateko gertatu behar dena)

ALDE BATEK 1. DOGMA

- (1) onartuz gero, muturreko kasu batzuk aurki daitezke zeintzuetan (1) nahikoa den ϕ -ren egiazkotasuna zehazteko.

ANALITIKO/SINTETIKO

2. DOGMA

- (1) eta (2) onartuz, edozein perpausentzat egiazko egingo duen esperientzia multzoa identifikatzea beti da posible. ERREDUKZIOA

ARAZOA → Ikuspuntu atomista: perpausa isolatuta hartzea.


QUINE → Perpaus isolatu bat ezin da egiaztatu/bere esanahia eman. Teoria oso hartu behar da kontuan (zientzia/hizkuntza). HOLISMOA.

10/22

QUINEREN PROPOSALUA: DOGMARIK GABEKO EUPRISMOA


• Zientziaren metafora berria

Vienako zirkulua: Etraikuntza, oinarriaren gainean



Quine: Sarea

Sarea ez da oinarritzen esperientzian. Baina esperientziarekin kontaktuan dago erizetan.



- Oinarria ukatu
- Zenbat eta berronarteko sarean, arduan eta dependentzia txikiagoa esperientziarekiko.

• EGIAZTATZE HOLISMOA: Erreduktionaren dogmaten aurka.

- Perpausak egiaztagarriak dira, eta izan behar dira

↳ Baina egiaztagarriak dira ^{sistemaren} osotasunaren parte diren heinean, ez osotasunetik isolatuta. _{teoriaren}

↳ Egiaztatze prozedurak sistema osoak ematen dizkigu eta sistema osoa da egiaztatzen dena.

- Teoria osoak esperientzia aurreikuspen du. Batzutan aurreikuspenaren eta esperientziaren artean taltza.

↳ Taltza horrek ez dio perpaus isolatu bati eragiten, SARE OSOARI edo sarearen eremu zabal oso bati baizik.

• Hori gertatzean, egia baldien distribuzio berria egin behar da sarean. Taltza baretzeko.

• EBIDENTZIA EUPRISMOAK TEORIA INFRADETERMINATZEN DU

- Evidentziak berak ez ditu automatikoki teoria determinatuko, mugak arri baizik

↳ Egia baldien berdistribuzioa era askotan egin daiteke.

* Ekaineren arabera, honetatik abiatuta ukatzen du Quinek erreduktibismoa eta planteatzen du egiaztatze holismoa.

• PERPAUS ORO DA ERREBISAGARRIA. EZ DAGO PRIVILEGIO EPISTEMIKORIK

- Ez dago egia baldia zintatuta duen perpausik

- Badakite perpaus batzuk errezelatik (esperientziatik) umnago daudenak eta beraz, esperientziaren eragin txikiagoa dutenak. Perpaus horiek, gainera, gainerakoekin lotura gehien dituztenak dira (matematika, logika)...

↳ Horiek aldatzeak kostu handia du sistemari, baina errebisagarriak dira.

↳ Gradu kontua da.

• TALKAREU AURREAN EGIA BALIDEN DISTRIBUZIO ^{JAKINEN} ALDE EGITEKO IRIZPIDEAK: PRAGMATISMOA

• Konserbadurismoa. Aukeren artean gutxiesten inbasibo dena aukeratzea.

• Simpletasuna

• ...

- Ez dira irizpide logiko-epistemikoaik Pragmatikoaik baizik

• QUINEREN ARAZOAK

- ERLATIBISMO ERDADIKALA

- Infradeterminazioetik abiatuta, egia balioren distribuzio posibleak beti bat baino gehiago dira.
- Ebidentzia empirikoak ez du ontologia bat eta bakarra determinatzeko balio.

• METAFILOSOFIA

• Viendo zirkulua: Filosofia → Perpaus analitikoak eragutzari buruz.

• QUINE: NATURALISMO - - -

- Filosofiaren perpausak ez dira analitikoak
- Sarearen parte dira

- ERREBISAGARRIAK DIRA FILOSOFIAREN PERPAUSAK.

- FILOSOFIAREN PERPAUSAK EBIDENTZIA EMPIRIKOARI LOTUTA DAUDE

• ESANAHIA: HOLISTIKO SEMANTIKOA (Esanahia existituko bada)

→ ^{Termino} ~~eszeptizismoa~~ intentsionalitateko eszeptizismoa kontuan izanda.

• Berifikazionismoa onartzen du.

- Perpaus baten esanahia dauka egiaztagarria den heinean

↳ Perpausak esanahia dauka sistema osoari aurreikuspenak egiteko gaitasuna eta, beraz, sistema egiaztagarria izateko gaitasuna, ematen dion heinean

- Perpausaren esanahia: Perpausak sistema osoan plartzten duen papera aurreikuspenak egiteko / Sistemak bainerako perpausekin duen erlazioa.

• Esanahiaren unitate minimoa: hizkuntza osoa.

1. Azaldu zer diren egia modalitateak eta zer den beharrezkotasunaren teoria semantika

2. Azaldu zergatik den analitiko/sintetiko bereizketa garrantzitsua, esp. logikarentzat.

3. Azaldu Quineren dogmatiko bat eta azaldu zer kritika egiten dion

4. Azaldu bi dogmen partoi komuna Quineren intziz.

5. Egiaztagarritasuna: azaldu perpausen eta esperientziaren arteko erlazioa Quineren intziz.

10/29

POTNAM

(10/25 fallan)

HEMENDIK AURRERAKO GAIAK ERLAZIONATUTA - 60ko hamarkodatik eurrera tesi batzuk ukatu

◦ **DESKRIPTIBISMOA**

◦ **INTERNISMOA** → Edukiaren determinazioari buruzko tesia

Gure gogo-egoera eta adierazpenak gure propietate internoek determinatzen dituzte.

TESI INDEPENDENTEAK DIRA: Bat onartu daiteke bestea ukatuz.

↳ BAIKA GUDO EUKAIATZEN DUTE

◦ **TRANSPARENZIA**: Hizun kompetente batenzat, erabiltzen dituen adierazpenen esanahiek argia izan behar du

◦ **DESKRIPTIBISMO COGORRA**: Izen propioak deskripzio definituak dira

↳ Badirudi, hizun kompetente batek izen propio baten deskripzio definituak eragutzen baditu, ezinezkoa dela izen propio horren edukia argia ez izatea hizunarentzat.

TRANSPARENZIA + **INTERNISMOA** } Adierazpenak hizunaz kanpoko propietateek determinatzen badituzte, ez dira argiak hizunarentzat.

(DES)BEARDITASUNU TRANSPARENZIA: Ezinezkoa da bi izen propioak eduki/esanahi bera izatea eta hizun kompetente arrazional ideal batek ez akitea.

DESKRIPTIBISMOAREN ETA INTERNISMOAREN ANTZEKOTASUAK

◦ **ERREFERENTZIAREN NORANTZA:**

- "BARRUTIK KANPORAKO" NORANTZA (SUBIEKTUTIK OBJEKTURA - Erreferentia -)

◦ **Deskriptibismoa** → Hizun batek objektu bati erreferentzia nola egiten dion zehazteko hasteko hizunak objektu hori erreferentziako darabiltzen deskripzioak eragutu behar dira.

◦ **Internismoa** → Antzekoa, hizunaren propietate internoekin (gogo-egoerak ad.)

* Erreferentziak ez du paperik jokatzen edukia determinazioan.

KRIPKE: NAMING AND NECESSITY

DESKRIPTIBISMOAREN ~~ERREFERENTZIA~~ LAU TESIAREN AURKA

(1) 'x' designatzaile arari y propietate multzo bat dagokio, A hizun batek 'x y da' uste duena

(2) A-k uste du propietate horietako batzuk objektu bati eta bakarrari dagozkiola.

(3) y objektu bakar batek y asetzen bada, y da 'x'-ren erreferentzia.

(4) ez badago y asetzen duen objektu bat eta bakarra, 'x'-k ez du erreferentziaren.

Deskriptibismo ahulararen 4 tesi dira. Ahule ezertatuz gero, gogorra ere ezertatzen da

(1) tesia onar dezake Kripkek

(2) Faltsua da. Argudiaketa:

◦ Feynman / Gel-man → Bi fisikari garrantzitsu Jendeak deskribapen bera biei buruz.

◦ Zizeren → Erramako hizlari ona, politikari garrantzitsua.

Badukute deskripzio hori ~~definitu~~ betetzen duten gehiago, nor diren jakin gabe.

(3) Faltsua da. Argudiaketa:

◦ Gödel / Schmidt → Schmidtek aritmetika osoa ez dela frogatu du. Baina Gödelrek bera balitz legez argitaratu du frogari: Gödelen deskripzio definitua "aritmetika osoa ez dela frogatu duena" bada, nori egiten zaio erreferentzia "Gödel austriarra da" esatean "Gödel" izen propioarekin.

Klase naturalen bidezko zatiketarik natura bere berezko sailkapenean islatzen du.

INTENSIO / HEDADURA (Ez da Putnamen proposamena)

klase natural termino baten hedadura: Multzoa
Intensioa: hedadurak jasotzen ez duen esanahiaren osagia/dimentsioa.

ESTEREOTIPOA / ESTANDARRA (termino)

- Estereotipoa: klase natural bati eiztzen zaizkion deskribapenak/proprietateak
Normalean **MAKRO PROPIETATEAK**: Begi hutsez edo baldintza normaletan berezgarriak diren propietateak.
- Estereotipoek badituzte dimentsio individual eta sozialak.
• Individuala: Hizun partikularak dira klase natural terminoak estereotipoekin lotzen dituztenak.
• Soziala: komunitate linguistikok ezaritzen du klase natural termino bakoitzari dagokion propietate minimo multzoa zeina beharrezkoa den hizun batek ezagutzeko termino horren hizun kompetentzia izan dadin. (termino)
- Estandarra: klase natural baten estandarra klase natural horren adibide paradigmatikoa da.

KLASE NATURAL TERMINOEN DESKRIPTIBISMOA

klase natural termino baten hedadurak estereotipoak bere hedadura determinatzen du. - Baldintza beharrezko eta nahikoak ematen ditu.

PUTNAMUERA ARTE ONARTU DIREN BI TESI → BATERAGARRIAK EZ DIRENAK:

- ① Termino baten esanahia (intensioa) ezagutzeko egoera psikologiko determinatu baten egotea da. (Tesi interuista)
Zentzuak ez dira egoera psikologikoak.
Baina zentzu bat aditzeko baldintza nahikoa da egoera psikologiko determinatu baten egotea.
- ② Intensioak hedadura determinatzen du.
Bi adierazpeneren intensio berbera badaite, hedadura berbera dute.

Bi tesiak onartuz gero, egoera psikologiko berean dauden bi pertsona hizketan badabilta, gauza berbereri erreferentzia egiten ari dira.

11/08

LUR BUKIA → Uraren antzera jokatzen duen substantzia: XYZ

XYZ ≠ H₂O
XYZ ≠ Ura
Bi-ura ≠ Ura

1750: Lurra: Oscar 1 → Ez daki ura H₂O dela } Ura 100°tan irakiten du.
Lur Bukian: Oscar 2 → Ez daki lur buia XYZ dela }

→ IDENTIKOAK DIRA

Demagun XYZ-k ez duela 100°tan irakiten.
Oscar 1-en ahotsan EGIA da "Ura 100°tan irakiten du."
Oscar 2-en ahotsan FALTSUA da "Ura 100°tan irakiten du."
→ Hedadura desberdina

BAWA: Oscar₁ eta Oscar₂ identikoak dira. Egoera psikologiko berean daude. Beraz, (1) eta (2) tesien baturak ez du funtzionatzen.

PUTNAM: (1) Tesia faltsua da.

PUTUAM: Meanings ain't in the head!

KLASE NATURAL TERMINOEN DESKRIPTIBILKOA FALTSUA DA.

klase natural baten estereotipoa ez da nahikoa hedadura zehazteko.

~~Kontradizioak~~ → Ez ditu baldintza nahikoa eta beharrezkoak ematen

~~Ura/Bi-ura~~

~~Urrea/Ure faltsua~~

→ KONTRADIBIDEAK:

Baldintza nahikoenak: Ura/Bi-ura

Urrea/Ure faltsua

Baldintza beharrezkoak: Ure urdina. Demagun urrea berez urdina dela. Estereotipoi buruz oker geunden. Beraz posible da klase natural baten estereotipoa ez ase eta klase natural termino horren hedadura erortzea.

BERAZ: Estereotipoa ez da hedadura zehazteko ez baldintza nahikoa, ez beharrezkoa.

NOLA DETERMINATZEN DA KUT BATEU HEDADURA?

Gutxienez bi faktore:

SOZIALKI: KUT baten hedadura (heine batean) sozialki determinatzen da.

- LAU LINGUISTIKOAREN BANAKETA: Badauke hiztun batzuk estereotipo berarekin lotzen dituzten KUTak. Adb. "Haritz/Pago".

Hala ere, "haritz" KUTia haritzei buruz hitz egiteko erabiltzen dute eta "pago" pagoei buruz hitz egiteko. Uba da posible?

LAU ERREAL EZBERDIAK DAUZKAGU HEINEAN → LAU LINGUISTIKO DESBERDIAK DAUZKAGU. ARDURA LINGUISTIKO DESBERDIAK → KOMPETENTZIA

MAILA DESBERDIAK:

- Minimoa: estereotipoa ezagutzea (dimentsio sozialean).
→ komunitate linguistikoren eta terminoaren araberakoa.
- Adituak: bereizketa esanguratsuek egitea.

→ Hedadura ez da indibidualki determinatzen. HEDADURA SOZIALKI DETERMINATZEN DA.

INDEXIKOKI (~~Gerora ikatu eragindua~~) (Terminoak ez da epokia, EDOKIA bai):

(FISIKOI) • KUT baten hedadura estandarren izaeraren araberakoa da heine batean.

• Hedadura sartuko da estandarren "gauza bera" ~~beste~~ bada.
→ Hain zer den zientziak erakusten du.

• Inquirune fisikoaren izaeraren araberakoa.

• Zertan datza estandarren gauza bera izatea?

Hori zientziak erakutsiko du.

→ Honen eta adituaren arteko desberdintasuna

Zientzia: Estandarren gauza bera zer den erakusten du

Aditua (Hedaduraren determinazioaren maila sozialari dagokionez): Gai da bereizketa erreibanteak egiteko.

11/12

* Aurreko puntuari honak iraritzen dio:
— klase natural identitatea

GAUZA BERA BATEA MUNDUZ MUNDUKO ERLAZIOA DA (Transworld)

Munduz mundukoak EZ diren erlazioak: Adb.

- Erlazio espaziotemporalak: Ez du zentzurik mundu desberdin bitako objektu bii zein distantzia-tara dauden galdetzeak
- Familia erlazioak

Munduz mundukoak diren erlazioak: Adb.

- Altuera erlazioak
- Gauza bera (klase natural mailan) izatea: Hori zientziak erakusten du, ea gauza bera den edo ez.
Ez dago mundu posiblek "Ura H₂O da" peripausa (mundu errealean esanda) faltsu egingo ozenik.

↓

"Ura H₂O da" bezalako peripausak BEHARREZKOAK eta a posteriori dira (Putnam/Kripke).

HIRU TESI Nagusi

- 1) Klase naturalek badute esentzia
- 2) Esentzia horiek zientziak deskubritzen ditu.
- 3) Zientziak deskubrimentu hori a posteriori egiten du.

↳ Beharrezkotasunaren teoria semantikoaaren aurka.

- KLASE NATURAL ESENTZIALISMOA
- BEHARREZKOTASUN SUBSTANTZIALA. Metafisika erreskatatu daiteke (Kripke)
↳ BADAUDE BEHARREZKOAK ETA A POSTERIORI DIREN PERIPAUAK.

EXTERNISMO SEMANTIKOA

• KANTen hedadura sozialki eta fisikoki determinatzen da (Oskar₁ eta Oskar₂)

↳ Ez dira subjektuaren propietate internok

- Intentsioak hedadura determinatzen du

- Hedadura ezberdineko KNT bik, intentsio ezberdina daukate

↳ EZAUGARRI EXTERNUAK ERRELEBANTEAK DIRA INTENSIOA DETERMINATZEKO.

[Putnam externismoaren aitzindari, baina ez du nahikoa esaten]

Internismoa: Gogo-egoera eta adierazpenen edukia internoki finkatzen dira.

- Mundu internoa eta externa ontologikoki independenteak.

EXTERNISMOA: Internismoaren ukapena

• Externismo motak:

~~linguistikoa~~

- Linguistikoa: Faktore externok erlelebariteak dira adierazpenen edukia determinatzeko, baina ez gogo-egoeraren edukia determinatzeko

— Putnamek ez du labur hau ematen —

- Mentala: Faktore externok erlelebariteak dira bai adierazpenen bai gogo-egoeraren edukia determinatzeko.

(Putnamek Oskar₁ eta Oskar₂-k egoera psikologiko bera dutela onartzen du)

Tyler Burge = "Individualism and the Mental"

2 munduetako Bert eta artritisaaren kasua. "Artritis" ezberdina da bi munduetako komunitate linguistikotan. Guk ezin dugu "Bertek artritisa daukela uste du" peripausa erabili "artritis" hitzak esanahi ezberdina duen munduko Berten gogo-egoeraren edukia azaltzeko.

KONTZERTUAK EXTERNUKI INDIBIDUATZEN DIRA

11/15

KAPLAN

SARRERA

INDEXIKOAK: Erreferentia testuinguruaren araberakoa dute. Adib. "Ni", "hemen", aditzaren denbora...

- Termino singular mota bat
- Indexiko tipo baten esanahiak erabileraren testuinguruaren ~~zein~~ eragari ~~erabileraren~~ erabileraren duen erakusten du

→ INDEXIKO PURUAK: Ez dute erakusketarik behar beren erreferentzia zehazteko.

→ ERAKUSLEAK: Erakusketarik behar dute beren erreferentzia zehazteko.

Indexiko PURUEN ADIBIDE PARADIGMATIKOAK: Izenordainak, aditzondo tenporalak, aditzondo lokatibo batzuk (erabileren batzutan)...

ERAKUSLEEN ADIBIDE PARADIGMATIKOAK: Erakusleak

PERRY: Frege erakusleez

PROPOSIZIOEN TEORIA (Frege):

- 1- PERPAUS BATEU ZENTZUA
- 2- PERPAUS BATEU PENTSAMENDUA
- 3- PERPAUS BATEU ZEHARKAKO ERREFERENTZIA

- Hirurak gauza bera dira. Proposizioek hiru paper desberdin horiek jakatu behar dituzte derrigorrez.

1. Perpaus baten zentzua: Hizun kompetente batek ulertzen duena (Perpausaren ~~erreferentzia~~ dimentsio kognitiboa)

2. Perpaus baten pentsamendua: Egia-baliaren subjektua

3. Perpaus baten zeharkako erreferentzia: Operatzaile intensional baten eraginpean perpausak daukan erreferentzia.



Hori QUARTUZ GERO: Quartu behar da proposizioa dela egia-baliaren subjektua, dimentsio kognitiboa eta zeharkako erreferentzia.

- Proposizio jarra bat izateko:
 - proposizio bat
 - subjektua
 - ~~operatzaile intensional~~ jarra (erlazioa garrantzitsua)



Proposizioa atribuzioen bitartez atribuitzen dena da.



11/19 Perryra arte onartua zen teoria:

PROPOSIZIOEN TEORIA

Esanahi kognitiboa islatzen dute.

PROPOSIZIOAK Egia-baliaren subjektuak dira.

Jarrera atribuzioen bitartez atribuitzen ditugunak dira.

PROPOSIZIO JARRERAK

Gogo egoera batzuk: nahiek, usteak, desirak...

Uste bat izatea = Proposizio batekiko jarra bat izatea

Proposizio jarraiek \Rightarrow direnak:

Hinak, hautemateak.

↓ \rightarrow Intenzionalak dira, baina ez proportzionalak.

Ez dira intenzionalak:

Ez dute edukirik

PROPOSIZIO JARREREN ATRIBUZIOAK

Adierazpen linguistikoko batzuk: Proposizio jarraiek deskribatzen dituzte.

S-k (p) U-tzen du

\rightarrow Proposizio jarraien edukia

~~PROPOSIZIO JARREREN ATRIBUZIOAK~~

PROPOSIZIO JARRERAREN ATRIBUZIOAREN EDUKIA

"S-k p U-tzen du" proposizioa da, baina PROPOSIZIO JARRERAREN EDUKIA ATRIBUITZEKO ERABILITZEN DIRA.

PROPOSIZIO JARRERAREN EDUKIA: Proposizio

PROPOSIZIO JARRERAK KONDUKTA KAUSATZEU DUTE.

PROPOSIZIO JARREREN ATRIBUZIOEN BITARTEZ KONDUKTA AZALTZEN DA.

Perry teoria haren aurka:

Perry supermerkatuen adibidea. Azukre arastan lurrean. "Hori kuxidada egiten ari da".
Arastoaaren atzetik joan da. Arastoa bere karratik dator. "Ni kuxidada egiten ari naiz".
Karrua ordenatzeasi ekin dio. kondukta aldaketa.

Indexikoak beharrezkoak dira adibide horretan. Teoria kontrastatzen du.

Perryk adibidean izan ditzakeen gogo-egoeraren edukirik (Bera dela ohartzean):

a) "Perry kuxidada egiten ari da" = p

Arazoa: Beste norbitek gogo egoera bera badu, ezberdin jokatuko du.

Bestalde, ez du Perry-ren ~~egoera~~ gogo egoeraren esanahi kognitiboa izaten,
ez baitu zerian, akin bera Perry dela.

b) "Ni kuxidada egiten ari naiz" = p

~~Beste~~ Beste norbitek hori uste izanez gero, Perryren era berean jokatuko du
eta esanahi kognitiboaren arazo konponduko da.

Arazoa: p ezin da egia-baliaren subjektua izan.

PROPOSIZIOEN IZERA

P. OROKORRAK / SINGULARRAK

↳ Objektu partikularia proposizioaren osagai.

Frege: Proposizio orokorak bakarrik dardte. Objektu partikularia ez da zentzuraren parte.

Russell: Proposizio singular zein orokorak dardte.

Singularrak gutxi batzuk. Oso arrarorak.

OROKORREAN DEDEK UGATU ZITEZTEN PROPOSIZIO SINGULARRAK

ERREFERENTZIA ZUZENA (Direct)

Termino singular batek zuzenean erreferitzen du bbb bere erreferentzia ez bada zentzuraren
bitartez finkatzen.

Adibide paradigmaticoa: Izen propioak (Kripke)

↓
Edukiaren parte diren
deskribapen modukoak.

→ KAPLAN: Indexikoak

Erreferentzia zuzenasen beste definizio bat: T.S. batek zuzenean erreferitzen du bbb proposizioari
egiten dion elkarpena erreferitzen duen objektua bera bada.

"Ni" indexikoak deskripzio bat behar du, "Testuinguruari hizketan ari dena" adibidez. Baina
deskripzio hori ez da edukiaren parte, ez da zentzuraren.

11/22

MUNDU POSIBLEEN SEMANTIKA

Mundu posibleak [redacted] erabiltzea intensiboak formalizatzeko eta hedadura

HEADURA: Adierazpenen BALIOA

- PREDIKATUETAN → Propietatea asetzen dutenen multzoa.
- T. SINGOLARRA → Bere denotazioa
- BALIESPENETAN → Egia-balioa


ADIERAZPENAREN HEADURA MUNDU POSIBLEAREN ARABERAKO DA

- PREDIKATUETAN
- DESKRIPZIO DEFINITUETAN
- IZEN PROPIOETAN EZ. DESIGNATZAILA ZURRUAK DIRA
- BALIESPENAK

Adierazpen batek mp batean daukan hedadura ≠ Adierazpen baten esaldiak MP batean izango lukeen hedadura.

MPen bidez hedadura ateratzeko eragiketa Funtzio bat da MP → H

adib. "Gizaki" = intensioa



- Predikatua → Multzoa
- D. Definitua → Objektu bat edo multzoa
- Izen propioa → Objektu bera beti

FUNTZIOA INTENSIOA DA. Mundu posiblea argudio hartzen du eta hedadura kalioztat eman

FUNTZIO KONSTANTEAK: Hartzen duten argudioa hartzen dutela, beti balio bera ematen dute.

IZEN PROPIOEN (Orokorrean, designatzaile zurrunen) INTENSIOA FUNTZIO KONSTANTEA DA.

Mundu posibleen semantikaren arazoa: INDEXIKOAK.

Zein da indexikoen hedadura edo nola jakatzen du bere intensioak?

Bi erantzun posible, biak okerrak:

- Designatzaile zurrunk dira. Aukera honek ondo funtzionatzen du indexikoek kontextu modaletan nola jakatzen duten azaltzeko, baina indexikoek beren indexikotasuna galduko lukete, izen propio bihurtuz.
- Deskripzio definituak dira. Indexikotasuna ondo pasetzen du, baina portaera modala ez.

KAPLAN → Bi aukerak kontuan hartu.

INDIZEA: Parametroen multzoak $\langle w, Ekain, 10:45, ikasgela \rangle$

Indizeak semantika baxetean kokatzen dituen bi papereak:

- ESALDIAREN TESTUUGURUA. Beharrezko par: $\langle w, a, t, p \rangle$ (Mundua, agentea, denbora, lekua)
- ERAGUARI ZIRKUNSTANTZIA $\langle w, t \rangle$

INDEXIKOEN ERE BI EZAUGARRI OSAGAI:



- INTENSIOA Zirkunstantzietatik hedadurara doan funtzioa.
- KARAKTEREA Testuingurutik intensioa doan funtzioa

INDEXIKOEN KARAKTEREA EZ DA F. KONSTANTEA; INTENSIOA BAI.

11/26

KARAKTEREA: Funtzioa: TEST → INT.

INTENSIOA: Funtzioa: ZIRK → HED.



TESTUINGURU INTENSIONALAK

OPERATZAILER INTENSIONALAK dituztenak

- MODALAK: □ ◊
- EPISTEMIKOAK: Proposizio arrera atribuzioak ("x-k ote du", "y-k nahi du"..)

Adb.

Donostiako hiriburua (t)
 filosofia fakultatea dagoen hiria (t')

Testuinguru normaletan → S.v. ordezkagarria
 T. intensionaletan → Ez ordezkagarria s.v.

- SUTOMA DA.
- HORRETAU BAT MILLIARRAK ETA FREGARRAK.

ARUTE BAT: de dicio irakurketan ari gara
 (de re / de dicio bereizketa)

T.intensionalak zergatik dira intensionalak?

OPERATZAILER INTENSIONALAK INTENSIONALAK DIRA INTENSIONAL BURUZ (eta ez deno-
 tazioei buruz) OPERATZEN DUTELAKO. INTENSIONAL BURUZ (eta ez deno-
 PROPOSIZIOEI

BEHARRERZKOAK / KONJINGENTEAK INTENSIONALAK (PROPOSIZIOAK) DIRA, EZ DENOTAZIOAK.

Adb. "Beharrezkoa da ~~da~~ Gipuzkoako hiriburua Gipuzkoako hiriburua izatea."

Beharrezkotasuna ez da Donostiari buruz, Gipuzkoako hiriburua!
 Gipuzkoako hiriburu izateari buruz baizik.

ORDEZKAPENA. Hori horrela delako, s.v ordezkapenak ez ~~du~~ funtzionatzen deskripzio definituen kasun + intensionaletan. ~~ez~~ ezberdinak adierazten dituztelako (ez direlako s.s. ordezkagarriak).

MILLIARRAREN AURKAKO PUEZLEA

Erreferente bera duten bi izen propio ezberdin ez dira s.v. ordezkagarriak testuinguru intensionaletan. ⇒

Ez dira, oro har, s.s. ordezkagarriak ⇒
 Milliarismoa faltzua da.

12/10

KRIPKE - A puzzle about belief

MILLIARRA / FREGEARRA EZTABADA

MILL: Izen propio baten proposizioari egiten ~~erreferentia~~ ^{dira} ekarpena erreferentia bera da. Zuzenean erreferitzen du.

- Izen propio hutsak: Edukia = erreferentia
- Esanahi kognitiboa: "Fregeren puzzlea zer?" - Arzoa

Izen propioaren edukia ez du bere esanahi kognitiboa izaten.

KRIPKAREN PUZZLEAK: Ez dira esplizituki esanahi kognitiboari buruzkoak, baizik eta ORDEZKAPEN PUZZLEAK TESTUINGURU INTENSIONALETAN

↳ Millianismeari arazok planteatzen dizkieten puzzleetatik abiatzen da artikuluak.
 Puzzle bat planteatzen du zeinaren ondorioa bai milliarrek bai frege-
 arrak arazoa duela den.

ORDEZKAPEN PRINZIPIOAK

• A eta A' adierazpenek eduki bera badakate:

- 1- Salva significatione ordezkagarriak dira.
- 2- Salva veritate

* 1. Perpaus batean A edo A' erabili, perpausak proposizio berbera adieraziko du (eduki berbera izango du).

* 2. A adierazpena erabilita egiazko perpaus bat osatzen bada, A-ren ordeza A' erabilita egiazko perpausa osatuko da.

PRINZIPIO HONEU OKARRIAN: KONPOSIZIONALTATE PRINZIPIOA

• t eta t' termino singularrek denotazio berbera badakate:

- Salva veritate ordezkagarriak dira (testuinguru "normal" ~~intensionaletan~~ ez intensionaletan)

EZTABADA

a eta b izen propioak erreferentzia bera badakate:

- MILLIARRA: - Salva significatione ordezkagarriak
- Salva veritate ordezkagarriak
- FREGEARRA: - Salva significatione ez ordezkagarriak (ez beti behintzat)
- Salva veritate ordezkagarriak (testuinguru "normaletan")

Argudio fregearrak

• Testuinguru intensionaletan izen propio ko-erreferenteak ez dira salva veritate ordezkagarriak ⇒

↳ Testuinguru normaletan ez dira salva significatione ordezkagarriak ⇒

↳ Ekarpen desberdina egiten diote proposizioari ⇒

↳ Millianismoa faltsua da


AZALPENA →

"Ni hemen nago orain" ---
 Behar den indizea: < agentea, lekua, denbora, ~~mundu~~ mundu posiblea >

Egiazkoa da esaldi hari erabilia den mundu posible bakoitzean, baina ez da beharrezkoa. Arazoia:
 "Ni," "hemen," "orain" (eta indexiko guztiak) designatzaile zurrunkak dira. Testuinguruan ezartzen da indizea. Beraz, indize bereko zirkunstantzielan bakarrik izango da egiazkoa.


IZEN PROPIOAK

KARAKTEREA DAUKATE → FUNTZIO KONSTANTEA DA



DESKRIPZIO DEF.

KARAKTEREA → KONSTANTEA
 "Estatu Batuetako presidentea"



ANIERAZPEN KOMPOSATUEN KARAKTEREA / INTENSIOA KONPOSIZIOVALKI EZARTZEN DA.

	KARAKTEREA	INTENSIOA
INDEXIKOAK	Ez-konst.	Konstantea
IZ. PROPIOAK	Konstantea	Konstantea
D. DEFINITIBOAK	Konstantea	Ez-konst. (salbuespenekin)

INDEXIKOEN ESANAHIA/EDUKIA

KARAKTEREA, ESANAHIA (INDEXIKOETAN)

- ① Adierazpen tipo batekin konbentzionalki lotuta.
 - Testuinguruz independenteki, hiztun kompetenteak ulertu dezake bere kompetentzia hutsagatik
 - Testuinguru eragutu gabe, gari da adierazpen ~~bat~~ bat bere karaktereagatik testuinguru bakoitzean zeharaka erabil daitezkeen jakiteko.
 - * Aspektu horietan, zentzua bezalakoa.
- ② Karaktereak erreferentea finkatzen du (testuinguru batean) ←
 - Propietateak esplotatuz (adib. testuinguru horietan hiztuna iraketa).
 - * Aspektu horietan, zentzuak bezala.
- ③ Karaktereak erreferentea moduren batean aurkezten du.
 - Testuinguru ezberdinetan indexiko ezberdinak erabil daitezke erreferente bera era batean edo bestean aurkizteko.
 - * Aspektu horietan, zentzuak bezala.

Zentzuarekiko ezberdintasunak: ①


Erreferente ezberdinak karaktere berarekin aurkiztu daitezke. ②

③ Karaktereak ez dira edukiaren parte.

<we, Ekain> "Ni Anjelakoa naiz." → Ez dute proposizio bera adierazten.
<we, Trabero> "Ni Anjelakoa naiz." → Ez dute egia bakoia determinatzen

11/20

~~INDEXIKOEN ZUZENEAN ERREFERITZEN DUTE~~



INDEXIKOEN ZUZENEAN ERREFERITZEN DUTE. Zentzu pregarriaren mediaziorik gabe
Arazo faltua: Indexikoek karakterearen bitartez (testuinguruaren propietateak erabiliz) erreferitzen dute.

Baina: Karaktereak ez da edukiaren parte. Edukiari egiten dion ekarpena erreferentea da.

INDEXIKOEN PROPOSIZIOEN EGITEN DITEN EKARPENA ERREFERITUTAKO OBJEKTA BERA DA

• Proposizio singularrak adierazten dituzte.

- Munduaren errepresentazioak
- Egia-balioaren subjektuak

Badago atzerako bide bat erreferentetik edukira:


- Indexiko baten edukia bere erreferentea determinatzen den heinean determinatzen da. (Fregeren aurka)

BEREIZKETA

ERREFERENTZIA FREGEARRA (GUTXIEZ T. SINGULAR GUTIENTZAT)



ERREFERENTZIA ZUZENA (IZEN PROPIO ETA INDEXIKOENTZAT)



HOLEN BATERA EZTABAIDA FORUALISTAN

FORUALISTAK: Konposizionalitate printzipioa ardatz. ZENTZUA (EDUKIA) TIPO MAILAN ZEHAZTEN DA. ARAZOAK:

- Testuingurua konposan uzten du. → Erreklata: Grice
- Indexikoak. Beren edukia tipo mailan zehaztea. → Erreklata: Kaplan

Proposizio singularren arazoa:

- Esanahi kognitiboa istaltzeko zekarrekiak dira.

↳ KONPOSBIDEA: Esanahi kognitiboa ez dagoela proposiziora.
 INDEXIKOEN KASUAN → karakterean dago.